



KUTXABANK TXARTELAK SUSTATZEKO KANPAINA: “PARIS 2024 JOKO OLINPIKOETARAKO BIDAIA-ZOZKETA”

1.- Definizioa:

KUTXABANK SAK ekintza komertzial bat egingo du Estatu osoan Kutxabankeek jaulkitako txartelak sustatzeko. Adinez nagusi diren pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere Kutxabanken bezero izanez gero eta oinarri hauetako baldintzak betez gero.

Zozketaren helburuak publizitatea egitea eta sustapena baino ez dira, eta ez dakar ez gainpreziorik, ez tarifakazio gehigarririk parte-hartzaileentzat.

2.- Sustapen honek honako saria izango du: **bi laguntzako (adin nagusiko pertsonak soilik gozatzeko) bidaiak bat Parisera**, 2024ko Joko Olinpikoak ikustera. Sariaren barruan daude: 2 gau 3* hotelean, Pariserako hegaldiak, Paris barruko joan-etorriak, 2 kirol-ikuskizunetarako sarrerak, Paris Tourist Pass eta VISA pertsonalaren bidaiak-laguntza. Bidaiaren datak: 2024ko abuztuaren 6tik 8ra. Sariaren merkatu-balioa (gutxi gorabehera): 11.500€.

Baldin eta, arrazoi teknikoak, sanitarioak, ezinbesteko arrazoiak edo Kutxabanken borondatek kanpoko beste edozein arrazoi direla medio, bidaiak ezin bada egin aurreikusitako egunetan, Kutxabankeek eskubidea izango du bertan behera uzteko, baliogabetzeko edo beste egun batera aldatzeko, eta Kutxabankeek ez du inolako erantzukizunik izango. Era berean, saridunak ez du inolako konpentsaziorik jasoko.

Halaber, Kutxabankeek ez du inolako erantzukizunik izango saridunak eta haren laguntzaileak bidaiak kalte-galeraren bat badute.

3.- Kanpaina 2024ko martxoaren 15etik 2024ko apirilaren 30era arte egingo da, egun biak barne, eta zozketa 2024ko maiatzaren 21ean egingo da.

Kutxabankeek eskubidea izango du sustapen hau bertan behera uzteko edo baliogabetzeko, edo sustapenaren baldintzaren bat aldatzeko, arrazoi teknikoengatik, osasun-arrazoiengatik, ezinbesteko arrazoiengatik edo bere borondatek kanpoko beste edozein arrazoiengatik sustapena ezin izango balitz normal egin. Kasu horretan, ez du inolako erantzukizunik izango aldaketan ondorioz, eta konpromisoa izango du oinarri eta baldintza berriak jakinarazteko eta horien berri emateko, edo, hala badagokio, baliogabetzeko, betiere aurrerapen nahikoarekin.

4.- Sustapen honetan adin nagusiko pertsona fisiko guztiek parte hartu ahal izango dute, betiere Kutxabanken bezero badira eta, zozketaren egunean, honako baldintza hauek guztiak betetzen badituzte:

- Gutxienez finantza-txartel aktibo baten titularra izatea; jarraian zehazten diren partikularren txartel hauetako bat izan daiteke:
- Visa Classic, Visa Urrea, Visa Urrea Duala, Visa Urrea Profesionala, Visa Platinum, Visa Dual, Visa Dual Profesionala, Visa Dual Korner, Visa Dual K26, Visa Dual K26+, Visa Dual %100, Visa Dual Nagusi, Sticker Dual/Kreditua, Visa Nakar, Visa Partaide, Visa Dual R.Sociedad, Visa Debit, Visa Debit Profesionala, Visa Debit Korner, Visa Debit K26, Visa Debit K26+, Visa Debit %100, Visa Debit Nagusi, Visa Debit R.Sociedad, Sticker Debito, Visa Extra, Visa Titanio.

- 2024ko martxoaren 15etik 2024ko apirilaren 30era arte, egun biak barne, 200 eurotik gorako gutxieneko zenbateko metatua duten erosketak egin izana, baliogabetu gabe, titularra den eta aurreko puntuan aipatutako txartelekin egindako erosketen batura kontuan hartuta, eta zozketa egin aurreko hilean (2024ko apirilean) Kutxabanken helbideratutako diru-sarrerak dituztenak: nomina edo langabezia-prestazioa hileko 600 €-ko gutxieneko zenbateko metatua duena, edo hileko 400 €-ko gutxieneko zenbateko metatua duen pentsioa, edo autonomoen ordainagiri bat.
- Zozketa-egunean Kutxabank kontu baten eta aktibo dagoen Kutxabank txartel baten titular izatea.
- Kutxabankek zozketatik kanpo utzi ahal izango ditu erakundeetan saldo zordunak mugaeguneratuta dituzten pertsona fisikoak, edo zozketaren egunean kapital-zuriketa prebenitzeko fitxategietan daudenak; eta kanpoan utziko ditu datuak babesteko araudiaren arabera publikizaterik ez jasotzea eskatu dutenak edo komunikazio komertzialak ez bidaltzeko fitxategi komunen batean sartuta daudenak.
- Kutxabankeko langileak sustapen honetatik kanpo geratuko dira.

5.- Parte-hartzaile bakoitzari “aukera” bat emango zaio 4. puntuan aipatutako txartelekin, 200 eurotik gorako gutxieneko zenbateko metatua duen txartel bakoitzeko. “Aukerak” zenbakitu egingo dira, elkarren segidan, 1 zenbakitik hasita.

6.- Era berean, 4. puntuan zehaztutako txartelekin egindako erosketak egiaztatzeko, “baliozkotzat joko dira 4. puntuan zehaztutako txartelekin eta kanpainaren indarraldian (2024ko martxoaren 15etik 2024ko apirilaren 30era bitarte) egindako erosketak, 3. puntuan jasotakoaren arabera. Kutxabanki erosketa horien berri emango zaio, fitxategi informatikoak egiteko egunean sare eta erakundeekin informazioa trukatzeko dauden sistemen bitartez”

7.- Zozketa notario aurrean egingo da 2024ko maiatzaren 21ean edo, egun horretan egitea materialki ezinezkoa bada, beste egun batean.

4. eta 5. oinarrietan aipatutako baldintzak betetzen dituzten txartelekin fitxategi informatiko bat osatuko da, txartel-zenbakiaren arabera ordenatuta eta bezero bakoitzari esleitutako “aukera” kopurua zehaztuta.

8.- Zozketa egiteko, notarioak zenbaki bat aterako du bonbo batetik; bonbo barruan, 1etik hasi eta, 5. oinarrian adierazten denaren arabera, esleitutako azken zenbakira arteko zenbaki guztiak sartuko dira. Zenbaki hori izango da sariduna.

Erreserbako aukerak zein diren jakiteko, atera den zenbakiari honako hau gehituko zaio, prozedura informatikoak erabilita: fitxategian dauden erregistratutako aukera guztien batura zati sari guztien kopurua (1) gehi erreserba kopurua (30); hau da, zati 31 egingo da, eta ateratzen den zatidura biribildu egingo da, beherantz (dagokion zenbaki osoa, dezimalak kenduta). Ondorio horietarako, fitxategiaren amaierara iritsiz gero, erregistratutako lehen aukerarekin jarraituko da kalkulua egiten, erreserbako (30) aukera guztiak osatu arte; erreserbak atera diren hurrenkeraren arabera ordenatuko dira.



9.- Pertsona bakoitza behin baino ezin da saridun suertatu. Sari bat baino gehiago suertatuz gero aukera bat baino gehiago egokitu izanagatik, saritutako lehen aukerari dagokion saria soilik eskuratu ahal izango du.

10.- Saridunari gutun, telefono nahiz posta elektroniko bidez edo Kutxabankek egokitzen jotzen duen beste edozein bitartekoren bidez, jakinaraziko zaio saria egokitu zaiola, ondorio guztietarako, zerga ondorioetarako barne. Sustapen honen xede den saria ezin izango da inola ere trukatu, aldatu edo konpentsatu saridunak eskatuta, eta sariaren orde ezin izango da sariaren kontrabaliao dirutan jaso. Edozein arrazoiengatik ezinezkoa bada emaitzaren berri ematea saridunari zozketa egin eta hamabost egun naturaleko epean, saria automatikoki ajudikatuko zaie erreserbei, hurrenkeraren arabera.

Saridunak uko egin diezaioke sariari, baina ezin izango dio beste pertsona bati eman. Kasu horretan, zozketan atera den erreserbako hurrengo aukerari eskainiko zaio saria.

11.- Saria Kutxabankek ekitaldi horretarako egokitzen jotzen duen moduan eta tokian emango zaie bezeroei.

12.- Bezero saridunak saria onartzen duela baieztatu beharko du, horretarako sortutako fitxa sinatuta, sariaren jakinarazpena jaso eta segidako 5 egun naturaleko epean.

13.- Sariari uko eginez gero, idatziz jakinarazi beharko da zozketaren emaitza jakinarazteko komunikazioa jaso eta segidako 5 egun naturaleko epean. Bezeroak sariari uko egiten badio, ez du inolako konpentsaziorik jasoko.

14.- Bezeroari jakinarazpena bidali eta, 5 egun naturaleko epea igarota, komunikaziorik jaso ez badugu (ez onartzeko, ez uko egiteko), bezeroak sariari uko egin diola ulertuko da, eta Kutxabankek eskubidea izango du sariaz baliatzeko.

15.- Zozketan parte hartuz gero, parte-hartzaileen datuak Kutxabanken Informazio Sistematan sartuko dira partaidetza hori kudeatzeko.

Datu horiek tratatu egingo dira, baina soilik saridunaren izen-abizenak eta/edo irudia erreproduzitu, erabili edo zabaltzeko publizitateko eta/edo sustapeneko edozein jardueratan, edozein bitarteko, euskarri edo formatu erabilita; jarduera horiek ez dute inolako ordainketa edo mozkinik jasotzeko eskubiderik emango, saridunaren edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren berariazko baimena izanez gero.

Era berean, datu pertsonalen tratamenduarekin zerikusia duen eztabaidarik sortuz gero, edozein unetan kontrol-agintaritzan erreklamazioa aurkez daitekeela jakinarazten da, eta datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko, aurka egiteko, datuen tratamendua mugatzeko, eramangarritasunerako eta datu pertsonalei dagozkien banakako erabaki automatizatuen xede ez izateko eskubideak ere baliatu daitezke. Eskubide horiek baliatu ahal izateko, komunikazio idatzi bat bidali behar da Kutxabanken egoitza sozialera edo info@kutxabank.es helbide elektronikora; kasu batean zein bestean, NANaren kopia bat atxiki behar da. Zure ustez, zure datu pertsonalak ez baditugu arauen arabera tratatu, Datuak Babesteko ordezkariarekin harremanetan jar zaitezke, helbide honetan: dpo@grupokutxabank.com.

16.- Saridunak ordaindu behar izango ditu kanpaina honetako sariaren ondorioz sortzen diren zerga-karga guztiak.



17.- Zozketan parte hartzeko aukera ematen zieten Kutxabank txartelak zozketaren egunean ezeztatuta dituzten pertsonak ezin izango dira saridun suertatu.

Saria esleitzeko, ezinbestekoa izango da zozketan parte hartzen duen bezeroak ordainketak eta Kutxabankekin egindako beste edozein eragiketa egunean izatea, eta ezin izango du Kutxabankekin inolako zorrik izan, ezein kontzeptu dela eta.

18.- Sustapen honetan parte hartzeak esan nahi du oinarri hauek berariaz onartzen direla, entitateak sustapenaren mekanika definitzeko ezarritako baldintzei dagokienez eta betiere parte-hartzaileak berariazko baimena ematea eskatzen ez duten baldintzak izanik. Sustapenaren oinarriak bete ez dituzten erabiltzaileak deskalifikatu ahal izango ditu Kutxabankek.

Bilbon, 2024ko martxoaren 14an.